



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Maria Larretxea Etxeberria
Juana María Altxu Juanikorena
Pello Ariztegi Etxepeteleku
Miren Ilarregui Belarra

2023ko apirilaren 3an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

1.- 2023ko urtarrilaren 26 eta martxoaren 1eko aktak onartzea.

2. ITURENGO UDAL PLAN OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren, aho batez —legeak eskatzen duen gehiengoa betez— erabaki dute:

1. Hasiera batez onestea Iturengo Udal Plan Orokorra, Francisco Javier Chocarro San Martínek eta María Urmeneta Fernándezek prestatua, eta hartan jasotako agiriak (memoria, planoak, araudia, ordenantzak, eraikinak babesteko katalogoa, ekonomia eta finantza azterketa), bai eta haren ingurumen-eraginaren azterketa eta lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren (LOEE) aldaketa ere.

2. Aldi berean, onestea ken dadin etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarren eskakizuna, uztailaren 12ko 20/2022 Foru Legearekin bat.

3. Lizentziak ematea etetea, Iturengo udal-mugartearen barnean determinazio berriek orain arteko indarreko hirigintza araubidea aldatzen duten lekuetan, bat etorritik abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 69.2 artikuluan xedatutakoarekin (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea). Hirigintza lizentzien etete hori ez da gertatuko, baldin eta egin nahi diren obrak bat badatoz bi planeamenduen edukiekin, hau da, bai gaur egun indarrean dagoenarekin, bai hasiera batez onetsitako Udal Plan Orokorrarekin.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Halaber, lizentzien etetea ez da aplikatuko, hasierako onespeneren aurretik hasitako espedienteak badira, horrelakoei indarreko araudia espedientearen hasieran baizik ez baitzaie aplikatuko.

4. Jendaurrean paratzea, hilabetean, Iturengo Udal Plan Orokorra eta hari dagokion ingurumen-eraginaren azterketa, biak hasiera batez onetsiak, iragarkia argitaraturik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, interesdunek egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorritz xedaturik dagoenarekin abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.6 artikuluan (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea) eta 4/2005 Foru Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan (Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko Foru Legea).

3. ETXEBIZITZA BABESTUAREN GUTXIENKO ESTANDARAREN ESKAKIZUNA KENTZEA ONARTZEA.

Aho batez –legeak eskatzen duen gehiengoa betez- erabaki dute:

- Onestea ken dadin etxebizitza babestuaren gutxienerako estandarren eskakizuna, uztailaren 12ko 20/2022 Foru Legearekin bat.

4. HJPE 2. POLIGONOKO 108. LURZATIA. HASIERAKO ONESPENA.

2. poligonoko 108. lurzatiaren PEAU aurkeztu du lokalak etxebizitza bihurtzeko helburuarekin. Parte hartzeko prozesua egin zen eta udal arkitekto aholkularien aldeko txostena jaso zuten. Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuarekin bat etorritz, **Udalbatzak hurrengoa aho batez erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- 2. poligonoko 108. lurzatiaren PEAU Proiektua hasiera batean onartzea.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen den egunkarian, jendaurrean egon dadin hilabete bateko epean.

3. Erabaki hau jakinaraztea interesatuei.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5. KOMUNALEAN ERLAUNTZAK JARTZEKO BAIMENA EMATEKO BALDINTZA AGIRIA: HASIERAKO ONESPENA.

Angel Goizueta Apezteguia jaunak herri komunalean erlauntzak jartzeko eskaera egin zuen. Informazio falta ikusirik, non kokatu nahi zituen, zenbat eta apikola ustiapenaren kodea zehazteko eskatu genuen. Datu hoiek eman eta gero, Iturengo udalak herrian ustiapen zenbaki horrekin altan ez dagoela emana konprobatu zuen. Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateen Ondasunen Erregelame ndua onesten duen araudiaren 154. eta 215. artikulua ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea ikusirik, **Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Eskatutako ustiapenaren titularraren ziurtagiria udaletxean aurkeztea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

6. MOZIOAK.

6.1 Puiuko Udalak herrilurretako lurzatiei desjabetzapena “Proyecto de plataforma del corredor Cantábrico-Mediterráneo de alta velocidad. Tramo Tafalla-Campanas” buruzko mozioa irakurri ondoren Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Zubietako Udalak Puiuko Udalak aurkeztutako mozioa onartzea eta atxikitzea

2.- Udalak ebazpen honen berri emanen die Adif, Nafar Gobernuako Ingurumen departamenduari eta Garraio eta Mugikortasun Ministerioari.

6.2 Garinoaingo Udalak herrilurretako lurzatiei desjabetzapena “Proyecto de plataforma del corredor Cantábrico-Mediterráneo de alta velocidad. Tramo Tafalla-Campanas” buruzko mozioa irakurri ondoren Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- Zubietako Udalak Garinoango Udalak aurkeztutako mozioa onartzea eta atxikitzea.

2.- Udalak ebazpen honen berri emanen die Adif, Nafar Gobernuako Ingurumen departamenduari eta Garraio eta Mugikortasun Ministerioari.

*****AINHOA BEREAU SARTZEN DA*****

7. ESKAERAK

7.1 Laura Goñi Elizalde udalarekin akordio bat sinatu zuen 2023ko otsailaren 1 ean; 2. Poligonoko 272. lurzatian dagoen etxebizitzaren lehen erabilpenaren lizentzia baimendua ahal izateko fiantza bat jarri zuen, udal arkitektuaren txostenen baimentzen zena. Jarri zuen fiantza bueltatzea eskatzen du.

Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 3.519,82€ko fiantza bueltatzea Goñi Elizalde andreari.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

7.2 Pedro Alchu Ariztegui, Bizkarkoborda elkartearen izenean, 1. Poligonoko 131 lurzatian duen txabolaren zesioa 2019.urteko ehizi denboraldiarekin bukatu zitzaion eta zesioa luzatzeko eskaera egin zuen. Udalbatzak **hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Eskaera onartzea eta zesioa 15 urterako luzatzea, 2034.ko ehiza denboraldiarekin bukatuko zaio.

2.- Sustatzaileak lursaila okupatzeagatik ordaindu beharreko urteko kanona 30 eurokoa izango da, gehi BEZa. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, Estatuan KPIak duen igoeraren arabera.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

7.3 Xabier Alzuri Arretxea jaunak 2.poligonoko 521. Lurzatian dauden hamabost Haritz amerikarrak botatzeko eskaera egin zuen. **Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Eskaera onartzea.

2.-Aprobetxamenduaren truke 1.036,00 euro kobratzea basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

7.4 M^a Teresa Erreguerena andreak Kontseilu kaleko 5. zenbakiko espaloian dagoen arketa ataskatzen da. Berotza abisatu da konpontzera joateko. **Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 6

Abstentzio 1

1. Berotzari berriro deitzea.

7.5 M^a Jose Ochandorena Aurtizko ostatua 2023ko martxoaren 2tik 5arte ixteko baimena eskatzen du. **Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Eskaera onartzea.

7.6 Elvira González Aguirreburualde andreak 2023ko otsailaren 28an kamioi batek Maizenea etxeko balkoi bat kolpeatu zuen eta dagokion neurriak hartzeko eskatzen du abiadura moteltzeko eta etxearen aurrekaldena kotxeak aparkatzeko. **Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Eskaera ikusita egokiak diren neurriak hartuko dira eta kalearen estutzea adierazten duten seinaleak eskatuko dira.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

7.7 Garbiñe Leitza Mikeo andreak bere etxera joateko bidea (pista) egoera okerrean dago, zuloz beterik, eta pistak moldatzea eskatzen du eta Garamatik beherako pista zementatzea.

Udalbatzak hurrengoa erabaki zuen:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Toki Inbertsioen Plana 2023-2025 an aurkeztu ahal diren dirulaguntzak iaz aurkeztu ziren. Hurrengoa eskatzeko momentuan kontutan hartuko da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8. ALKATE EBAZPENAK

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (1/2023. ebazpenetik 13/2023. ebazpena) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

9. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian Udalbatza herriko gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —Fco Javier Alchu Iparraguirre, Blanca Urroz Garralda ----Luzapena Jose Maria Gorosterrazu Elizalde—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —Sebastian Lasaga Petrirena, Jose Maria Gorosterrazu Elizalde eta Beñat Elizalde Ayestarán ---zuhaitz sakabanatuen aprobetxamenduak---; Kantauriko Konfederazio Hidrografikok emandako baimenak Ameztiko urak Iturtxolo iturburuko espedienteak----Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institututik uraren kalitatearen Iturengo informeak; Sepronako espedienteak bertan utzitako kotxe batena eta Juan Carlos Laboa Urchipak 5. Poligonoko 20. Lurzatiko bordan egindako baimendugabeko lanak---:Iberdrolak ordaintzen dituen tasak--; 187/2022 epaia 153/2021 prozedura arrutari bukaera emanez.--:51/2023 eta 52/2023 industria antolamenduko zerbitzua.

10. GALDERA-ESKAERAK

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 17:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.